

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

440/2014 Foru Agindua, urriaren 10ekoa, behin betiko onartzen duena Añanako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen seigarren aldaketari buruzko espedientea

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Añanako Udalbatzak, 2014ko maiatzaren 9ko ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion planeamenduko arau subsidiarioen 6. aldaketaren espedienteari. Horrez gain, espediente hori jendaurrean jartzea ere erabaki zuen, eta, horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (2014ko maiatzaren 19a, 55 zk.) eta El Correo egunkarian (2014ko maiatzaren 23a). Era berean, Atiegako Administrazio Batzarrari ere jakinarazi zitzaion.

Bigarrena. Jendaurreko informazio aldiaren ez zenez inongo alegaziorik aurkeztu, udalak, 2014ko ekainaren 27ko ohiko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalaren irailaren 25eko 5/2013 bilkuran, espedientearen aldeko txostena egin zuen.

Laugarrena. Añanako Udalak espedientea bidali zuen behin betiko onartua izan zedin. Espediente horrek 2014ko uztailaren 28an izan zuen sarrera Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

Bosgarrena. Era berean, espedientearen gaineko txostena egin zuen Arabako Hirigintza Batzordeak irailaren 24an egindako 155/2014 bilkuran, Diputatuen Kontseiluak abenduaren 14an onartutako 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Proposatutako aldaketa da kentzea Gesaltza Añanako hirigune historiko harresiaren ondoan dagoen "Frontoia" kirol ekipamenduaren sistema orokorra.

Horren arrazoia da eraikin desegokia dela tamaina handiegia duelako, eta horrek paisaiaren gaineko eragina du Gesaltzako herrigune historikoan; hori guztia martxoaren 26ko 185/2013 Dekretuak, Añanako (Araba) Gatz Haraneko kultura paisaia kultura ondasun kalifikatu zuenak monumentu multzo kategoriarekin, xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena. Orain arte frontoiaren kokapena izan den leku horretarako, espazio libreen sistema orokorra eta kultura ekipamenduko sistema orokorra proposatzen dira, azken hori egungo kirol ekipamendua baino txikiagoa.

Hirugarrena. Hirigune historikoko iparmendebaldean harresiz barruan dagoen frontoiaren ingurua balio handiko zona dugu, kultura zein paisaia ondarearen ikuspuntutik. Beraz, egokia ikusten da arau subsidiarioen aldaketa puntuala, honakoak gordetzeko eta babesteko proposatua: harresia, hiri parke perimetrala igarotzen duen harresiz kanpoko ingurabidea eta Gesaltza Añanako hirigune historikoa.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Lehenengoa. Behin betiko onartzea Añanako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 6. aldaketaren espedientea, ondoko baldintzarekin:

– 1.2 idatz zatia zuzenduko da honakoa ezabatuta: “Añanako udalerrian indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioetara egokitzeko”

Bigarrena. Aipatutako aldaketa ez da funtsezkoa. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, espedientea betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpena hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 10a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
MARTA RUIZ CERRILLO